NEGUKO BIDAIA 2022

Andrés Isasi Musika Eskola



urtarrila / enero

22 **MALOS TIEMPOS**
jazz fusión

29 **FOLK AL DOK?**
folk

otsaila / febrero

5 **RICHIE SALVADOR QUARTET**
jazz

12 **TRÍO VIVO**
clásica
(violín, cello y contrabajo)

19 **CAPRICCIO VOCALE**
clásica
(soprano, barítono y piano)

26 **LOS 5 BILBAINOS**
bilbainadas

Kontzertuen ordua: 19:30 / Hora de los conciertos: 19:30



MALOS TIEMPOS urtarrilak 22 enero 19:30

2017an sortutako taldea, jazz estiloan idatzitako beraien konposizioak interpretatzen dituena (fusioa, latina...)

Grupo formado en 2017 que interpreta composiciones propias escritas en estilo de jazz (fusión, latin...)

Jose Urrejola Bilbao

Flautak, saxoak, EWI, teklatuak, perkusioa, konposizioa eta konponketak
Kide izan da:
Jazz taldeak: Alen, Oapertura, Saluda a tu sombra, Electric dreams, Sin papeles, Malos tiempos.
Folk taldeak: Oskorri, Igelaren banda.
Latin taldeak: Ghetto p'alante, Tik tara.
Poesia musikala taldea: Poetas en sol fa (Alex Angulo eta Loli Astorekarekin).
Kolaborazioak: Amaia Uranga, Kepa Junquera, Xabi Aburruzaga, Sacratif, Et incarnatus, Gontzal Mendibil, Ganbara, Tomás San Miguel, El límite, Delito, Dolphin blues band.
Antzerki, dantza, film labur, dokumental eta publizitaterako konposizioak.

Flautas, saxos, EWI, teclados, percusión, composición y arreglos
Ha sido miembro de:
Grupos de jazz: Alen, Opertura, Saluda a tu sombra, Electric dreams, Sin papeles, Malos tiempos.
Grupos de folk: Oskorri, Igelaren banda.
Grupos música latina: Ghetto p'alante, Tik tara.

Grupo de poesía musical: Poetas en sol fa (con Alex Angulo y Loli Astoreka).
Colaboraciones: Amaia Uranga, Kepa Junquera, Xabi Aburruzaga, Sacratif, Et incarnatus, Gontzal Mendibil, Ganbara, Tomás San Miguel, El límite, Delito, Dolphin blues band.
Composiciones para teatro, danza, cortos, documentales y publicidad.

Eloy Urrejola Bilbao

Baxu elektrikoa eta trasterik gabeko baxu elektrikoa
Kide izan da edo da:
El Fin (pop), Sacratif (jazz), Continente (berbena), Casa de Salud (pop-rock), Moby Dick (berbena), Urgabe (berbena), Edwin y su orquesta (salsa), Xabi Aburruzaga (folk), Saluda a tu sombra (jazz), El Consorcio (abestimelodikoa), Plug & fusay (pop-jazz),Electric dreams (jazz fusion), Sin papeles (jazz), Malos tiempos (jazz), Gintonic (rock sinfonikoa).
Kolaborazioak: Igelaren banda, Carlos Velasco, Miguel Salvador eta abarrekin.

Bajo eléctrico y bajo eléctrico sin trastes
Ha sido o es miembro de:
El Fin (pop), Sacratif (jazz), Continente (verbena), Casa de Salud (pop- rock), Moby Dick (verbena), Urgabe (verbena), Edwin y su orquesta (salsa), Xabi Aburruzaga (folk), Saluda a tu sombra (jazz), El Consorcio (canción melódica), Plug & play (pop-rock, jazz), Electric dreams (jazz fusion), Sin papeles (jazz), Malos tiempos (jazz), Gintonic (rock sinfónico).
Colaboraciones con Igelaren banda, Carlos Velasco, Miguel Salvador, etc.
Ha sido profesor en la academia Roland de Mungia y Riff en Algorta.
Mungiako Roland eta Algortako Riff akademietan irakasle izan da

Juanfran Moyano

Bateria
Kide izan da edo da:
Mamma Down (hard rock): abesti propioak ingelesez.
Kinubak (folk pop-rocka): euskarazko abesti propioak.
Te Mamas &Te Empapas: Eagles, Linda Ronstadt, Christopher Cross, El Consorcio eta abarren bertsioak.
Garai txarrak (jazza): konposizio propioak.

Batería
Ha sido o es miembro de:
Mamma Down (hard rock): canciones propias en inglés.
Kiñubak (folk pop-rock): canciones propias en euskera.
Te Mamas & Te Empapas: versiones de clásicos como Eagles, Linda Ronstadt, Christopher Cross, El Consorcio, etc.
Malos tiempos (jazz): composiciones propias.



FOLK AL DOK? urtarrilak 29 enero 19:30

Zer da folk? Zein da Euskal Herriko folk musika? Galdera honen erantzuna ez da erraza. Boskote honek (Gentzane Fernandez, Eneko Benito, Iker Álvarez, Ander Trabudua eta Ieltxu Jiménez) urteak daramatza musika munduan murgilduta esparru eta musika estilo desberdinak jorratuz. Zuzeneko honetan, 15 instrumentu desberdin baino gehiago baliatuz, "folk" musikaren euren ikuspuntua erakutsiko dute, Euskal Herriko artista ezagunen piezak, pieza tradizionalak eta herrikoiak eta pieza berriak ere interpretatuz.

¿Qué es el folk? ¿Cuál es la música folk de Euskal Herria? La respuesta a esta pregunta no es sencilla. Este quinteto (Gentzane Fernández, Eneko Benito, Iker Álvarez, Ander Trabudua Ieltxu Jiménez) lleva años inmerso en el mundo de la música abordando diferentes ámbitos y estilos musicales. En este directo, con más de 15 instrumentos diferentes, mostrarán su punto de vista de la música "folk", interpretando también piezas de reconocidos artistas de Euskal Herria, piezas tradicionales y populares y nuevas piezas.



RICHIE SALVADOR QUARTET otsailak 5 febrero 19:30

Andoni Aizpuru
Bilbon jaiotako saxofoi-jotzaileak 7 urterekin hasi zuen bere musika-ibilbidea, Andrzej Olejniczaken eskutik, Leioako Musika Kontserbatorioan saxofoi klasikoa ikasten. Musika klasikoko ikasketak egiten ari zela, jazzarekiko interesa piztu zitzaion.
Musika Hezkuntzan diplomatu ondoren, 2011n, jazzean murgildu zen erabat, eta Miguel Salvador, Raul Sainz de Rozas eta Roberto Nievarekin jarraitu zuen ikasten, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan sartu arte. Saxofoi Jazzeko goi-mailako ikasketetan Alberto Arteta, Iñaki Askunze eta Mikel Anduezaren klaseak jaso zituen, besteak beste, eta CSMNeko Big Bandeko kide da.
Bere ikasketak osatzeko, hainbat masterclassetan hartu du parte, hala nola musikari hauen eskutik: Ariel Bringuez, Jon Urrutia, Kurt Weiss, Jere Laukkanen, Gilad Hekselman, Romain Pilon eta Petros Klampanis.

Saxofonista nacido en Bilbao, inicia su carrera musical a los 7 años de la mano de Andrzej Olejniczak estudiando saxofón clásico en el Conservatorio de Música de Leioa. Durante sus estudios de música clásica despierta su interés por el jazz.
Tras diplomarse en Magisterio Musical en 2011 se vuelca totalmente en el jazz y continúa su formación con Miguel Salvador, Raúl Sáinz de Rozas y Roberto Nieva hasta ingresar en el Conservatorio Superior de Música de Navarra. Durante sus estudios superiores de Saxofón Jazz recibe clases de Alberto Arteta, Iñaki Askunze y Mikel Andueza entre otros, y forma parte de la Big Band del CSMN.
Para complementar sus estudios también ha asistido a diversas masterclass impartidas por músicos como Ariel Bringuez, Jon Urrutia, Kurt Weiss, Jere Laukkanen, Gilad Hekselman, Romain Pilon y Petros Klampanis entre otros.

Jon Ander Amigo
Baxu elektrikoa eta kontrabaxua. Bilboko eszenan sarri aritua, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Kontserbatorioan (Musikene) eta Nafarroako Goi-Mailako Musika Kontserbatorioan garatu zuen bere prestakuntza jazzistikoa, eta azken horretan jarraitzen du gaur egun. Javier Colina, Barry Harris, Pepe Bao eta Ante Baoren masterclassetan hartu du parte. 2018an Atotxako Big Bandan parte hartzen hasi zen Mikel Romeroren zuzendaritzapean.
Musikari polifazetikoa denez, hamaika grabazio eta proiektutan lan egin du, eta hainbat jaialditan parte hartu, hala nola Heineken Jazzaldian, Santurtzi Jazzen edo Deba Jazzes Blau jaialdian. Bere ibilbidean zehar hainbat talderekin lan egin du, besteak beste: Charlie don 't jazz, Mr. Bop trio, DJfunk, Jazz morning duo, The asymphotomatics, Xahu, Ados Jazz Band…

Bajo eléctrico y contrabajo, asiduo de la escena bilbaína, desarrolló su formación jazzística entre el Conservatorio Superior de Música del País Vasco (Musikene) y el Conservatorio Superior de Música de Navarra, en el cual se encuentra actualmente. Ha asistido a masterclasses de Javier Colina, Barry Harris, Pepe Bao y Ante Bao. En 2018 entra a formar parte de la Atotxako Big Banda bajo la dirección de Mikel Romero.
Polifacético músico, ha trabajado en innumerables grabaciones y proyectos de toda índole así como participado en varios festivales como Heineken Jazzaldia, Santurtzi Jazz o el Deba

Jazzes Blau. A lo largo de su andadura ha trabajado con grupos como Charlie don't jazz, Mr.Bop trío, DJfunk, Jazz morning duo, The Asymphotomatics, Xahu, Ados Jazz Band y un largo etcétera.

Ander Hernández Acinas
Etengabe garatzen ari den musikaria da. Miguel Salvador irakaslearekin hasi zuen prestakuntza jazzistikoa Getxo Udal Musika Eskolan, eta berarekin batera hainbat jaialditan parte hartu du, hala nola Getxo Jazz 2016-2017 eta Vitoria Jazz Festival 2019 jaialdietan. Gaur egun, jazzeko bateriako goi-mailako ikasketak egiten ari da Nafarroako Goi-Mailako Musika Kontserbatorioan. The Asymphtomatics, Ados Jazz Quartet, Jazz ta bien eta beste hainbat taldetan parte hartu du, baita Downtheladder eta Phyramus rock taldeetan ere. Bateria irakaslea da Bilboko Muzzik musika akademian.

Músico en constante desarrollo. Comenzó su formación jazzística en la Escuela de Música de Getxo con el profesor Miguel Salvador con el que ha participado en diferentes festivales como el Getxo Jazz 2016-2017 y Vitoria Jazz Festival 2019. Actualmente se encuentra realizando los estudios superiores de Batería de Jazz en el Conservatorio superior de música de Navarra. Ha participado en grupos como The Asymphtomatics, Ados Jazz quartet, Jazz ta bien y muchos más, así como grupos de rock como Downtheladder y Phyramus. Profesor de batería en la academia de música Muzzik de Bilbao.

Richie Salvador
Bilbon jaio zen, eta 6 urterekin hasi zituen musika-ikasketak, pianoa instrumentu nagusitzat hartuta. Nerabezaroan, jazzaz eta musika inprobisatuaz interesa piztu zitzaion, eta Miguel Salvadorrekin eta Ion Pirisekin klaseak jaso zituen, bere ibilbide profesionalari hasiera emanez; Sormen-Musika Eskolan eta Musikene-Goi Mailako Musika Kontserbatorioan zabaldu zuen prestakuntza Germán Kucich, Iñaki Salvador, Bob Sands, Pepe Rivero, Andrés Alen, Joaquín Chacón edo Ramón Pausen eskutik; eta masterclassak hartu ditu Dave Liebman, Seamus Blake, Ed Partika, Jorge Pardo, Javier Colina, eta Ernie Watts irakasleen eskutik besteak beste. Zenbait artistari lagundu die, esate baterako Bele Arjona eta Kike Ruiz artistei, lanak tartekatuz zuzeneko piano-jotzaile gisa hainbat formaziotan eta proiektu musiko-teatraletan, besteak beste, "UnderBrecht, un cabaret" edo "Mi, me, conmigo", eta telebistarako, antzerkirako, antzerki-musikaturako eta bestelako ikus-entzunezko baliabideetarako musika konposatu eta grabatzearekin batera.

Nacido en Bilbao, comienza sus estudios musicales a los 6 años de edad, con el piano como instrumento principal. Ya en la adolescencia se interesa por el jazz y la música improvisada y recibe clases con Miguel Salvador y Ion Piris, comenzando su carrera profesional y ampliando su formación en la Escuela de Música Creativa y el Centro Superior de música del País Vasco (Musikene), de la mano de Germán Kucich, Iñaki Salvador, Bob Sands, Pepe Rivero, Andrés Alén, Joaquín Chacón o Ramón Paus, y Master Classes con Dave Liebman, Seamus Blake, Ed Partika, Jorge Pardo, Javier Colina, o Ernie Watts, entre otros.
Ha acompañando a artistas como Belén Arjona o Kike Ruiz, compaginando trabajos como pianista de directo en diferentes formaciones y proyectos músico-teatrales como “UnderBrecht, un cabaret" o "Mi, me, conmigo", junto con la composición y grabación de música para TV, teatro, teatro- musical, y otros medios audiovisuales.



TRIO VIVO otsailak 12 febrero 19:30

Zaila da bi hitzetan barne hartzea leku akustiko ausarta, soinu-bidaia handi eta bizia, oroipen koloretsuen paleta eta musika-ikerketa propioa. Zaila, baina ez ezinezkoa, bi hitz dira; substantiboa eta adjektiboa: “Trío Vivo” (Hirukote Bizia). Miquel Angel Cordero, baxuan; Joan Antoni Pich, biolontxeloan; eta Carlos Montfort, biolinean. Hamabi soka dardarka igurtzi, sakatu eta kolpekatzen direnean. Hiru musikari egurra durundiarazteko prest, instrumentuaren arima agertu arte. Hirukotearena erraz sumatzen da zergatik den, biziarena somatzeko entzutea ez ezik, sentitzea ere ezinbestekoa da. Bere aurkezpenek entzuleekin batera soinu-bidaia egiten dute, non bertaratzen direnak musika-tresna dardarkari bihurtzen diren. “Trio Vivo” hirukoteak kantu originalak, pieza hilezkorren moldaketak eta inprobisazioak tartekatzen ditu. Normala da gaur egungo musika-taldeek hori egitea. Normala ez dena da hirukote honen interpretatzeko modua. Hirukote biziak komunikaziotik zirrara egiten du salto. Beraiek emozioa direlako.

Trío Vivo taldeko kideek jazzaren, musika garaikidearen edo flamenkoaren bideetatik eraman dituzte beren karrerak, beren formazio klasikoari uko egin gabe, sormenari eta inprobisazioari musikari gisa garatzeko espazio berezia emanez. Beste proiektu batzuekin bat egin ondoren, hari-hirukotearen aukerak aztertzea erabaki zuten, “Trío Vivo” sortuz eta 2016an jendaurrean aurkeztuz. Esplorazio horren ondorioz, 2017an argitaratu zuten lehen diskoa, eta SGAEk Bartzelonan duen egoitzan aurkeztu zuten.

Miquel Angel Cordero diziplina anitzeko kontrabaxu-jotzailea da, eta hogeita bost urte baino gehiagoko esperientzia du agertokietan. Nazioko eta nazioarteko artista ugariri lagundu die, eta ehundik gora grabazio diskografiko, telebista-programa eta film egin ditu. Gaur egun Balearretako Goi-Mailako Musika Kontserbatorioan dihardu irakasle.

Carlos Montfort multi-instrumentista, konpositore eta ekoizlea da, Berklee College of Music-en ikasle ohia. Ikus-entzunezkoetarako musika konposatzen du, beste artista batzuk produzitzen ditu (Lidia Pujol, Momi Maiga, Maria de la Flor) eta zenbait artistarekin aritzen da, besteak beste Silvia Pérez Cruzekin, zeinarekin 2013az geroztik kolaboratzen duen.

Joan AntoniPichek, Espainian, Alemanian eta Holandan hezitako biolontxelo-jotzaileak, Bartzelonako eta Lizeoko orkestra sinfonikoekin kolaboratu ohi du eta musika garaikideko taldeetan ere parte hartzen du (BCN216, Kammart edo Morphosis Ensemble taldeetan esate baterako). Jazz eta baxu elektrikoa ikasi zituen EMMBn eta Taller de Músics-en. Freenetics inprobisazio libreko hirukoteko kidea da, baita Trío Vivokoa ere. Badalonako eta Bartzelonako Oriol Martorell Kontserbatorioetan irakasle da.

Es difícil contener en dos palabras un lugar acústico osado, un viaje sonoro intenso e inmenso, una paleta de evocaciones colorida, una investigación musical propia. Difícil, pero no imposible, son dos palabras; un sustantivo y un adjetivo: Trío Vivo. Miquel Àngel Cordero, con el bajo; Joan Antoni Pich, con el violoncello, y Carlos Montfort, con el violín. Doce cuerdas vibrando al ser frotadas, pulsadas, percutidas. Tres músicos dispuestos a hacer resonar la madera hasta desvelar el alma del instrumento. Lo de trío es fácil de intuir, lo de vivo es imprescindible no sólo escucharlo, sino sentirlo. Sus presentaciones acompañan al auditorio a un viaje sonoro, donde los asistentes se transforman en instrumentos musicales vibrantes. Trío Vivo alterna temas originales, arreglos de piezas inmortales e improvisaciones. Es normal que agrupaciones musicales contemporáneas lo hagan. Lo que no es normal es cómo lo hacen ellos. Trío vivo salta de la comunicación a la comunión. Y sólo de la comunión es posible que nazca la emoción. Trío vivo es emoción.

Los miembros del Trio Vivo han llevado sus carreras por las sendas del jazz, la música contemporánea o el flamenco sin renunciar a su formación clásica, dando a la creatividad y a la improvisación un espacio especial en su desarrollo como músicos. Tras coincidir en otros proyectos, decidieron explorar las posibilidades del trío de cuerda, creando Trio Vivo y presentándose ante el público en 2016. Fruto de esa exploración publicaron su primer disco en 2017, que fue presentado en la sede de la SGAE en Barcelona.

Miquel Àngel Cordero es un contrabajista multidisciplinar con más de veinticinco años de experiencia en los escenarios. Ha acompañado a variados artistas de ámbito nacional e internacional y ha realizado más de un centenar de grabaciones discográficas, programas de televisión y películas. Actualmente ejerce de profesor en el Conservatorio Superior de Música de Baleares.

Carlos Montfort es un multi-instrumentista, compositor y productor, ex alumno de Berklee College of Music. Compone música para audiovisual, produce a otros artistas (Lidia Pujol, Momi Maiga, Maria de la flor) y actúa al lado de artistas como Silvia Pérez Cruz, con quien colabora desde el año 2013. Compagina el Trio Vivo con sus otros proyectos personales, el duo indie Clementina y Montfort.

Joan Antoni Pich, violonchelista formado en España, Alemania y Holanda, colabora habitualmente con las orquestas sinfónicas de Barcelona y del Liceo y participa en grupos de música contemporánea como BCN216, Kammart o Morphosis Ensemble. Estudió jazz y bajo eléctrico en la EMMB y el Taller de Músics. Es miembro del trio de improvisación libre Freenetics además del Trio Vivo. Es profesor en los Conservatorios de Badalona y “Oriol Martorell” de Barcelona.



CAPRICCIO VOCALE otsailak 19 febrero 19:30

Capriccio Vocale Coruñan jaio zen 1999an, eta kasualitatez elkartu ziren, bakoitza bere kontura hainbat urtez musika garatzen aritu ondoren.
Egitarauan kontzertuetako espainiar abestiak, Galiziako lirika, erromantzak, zarzuelako duoak eta opera zatiak sartzen dira.
Capriccio Vocale adiskidetasun-adierazpen partekatua da, baita musika elkarrekin egitearen plazera ere.

Capriccio Vocale nació en La Coruña en 1999. La casualidad los fue a reunir tras varios años de desarrollo musical por separado.
En su programa incluyen canciones españolas de concierto, lírica gallega, romanzas y dúos de zarzuela y fragmentos de ópera.
Capriccio Vocale es una expresión de amistad compartida, así como el placer de hacer música juntos.

Olga Raíces. Sopranoa / soprano

Caracasen jaio zen, Venezuelan. Musika Hezkuntzako irakasle espezialista da. Santiago de Compostelako Kontserbatorioan hasi zuen bere kantuko musika-heziketa, eta bertan bizi da. Hainbat abesbatza-taldetan parte hartu zuen. Ana Fernaud, Marimí del Pozo, Teresa Tourné, Inés Rivadeneira eta Helena Lazarska irakasleekin hobetu zuen bere ahots teknika. 2013an, “Música en Compostela” Nazioarteko Unibertsitate Ikastaroko kantu-katedrara joan zen, eta bertan Isabel Penagos irakaslearekin lan egin zuen.
In Itinere ganbera-taldeko soprano bakarlaria izan zen, Erdi Arotik Barrokora bitarteko errepertorioan espezializatuz; harekin hainbat bira egin zituen Europan eta Amerikan zehar eta hiru disko grabatu zituen. Bakarlari gisa kolaboratu du honako hauekin ere: Terra a Nosa Orfeoiarekin, Santiago Katedraleko Kaperarekin, Madrigaliarekin, Collegium Compostelanum-ekin, Coruñako Ganbera Abesbatzarekin, Si Vis Me Canere-ekin, etab. Santiagoko Via Stellae

jaialdian parte hartu zuen Federico María Sardelliren zuzendaritzapean.
Bakarlari gisa abestu du Madrilen, Palentzian, Guadalajaran, Granadan, Cartagenan, eta batez ere bere herrian, Galizian.

Nació en Caracas, Venezuela. Es maestra especialista en Educación Musical. Inició su formación musical de canto en el Conservatorio de Santiago de Compostela, ciudad donde reside. Formó parte de diversas agrupaciones corales. Perfeccionó su técnica vocal con las maestras Ana Fernaud, Marimí del Pozo, Teresa Tourné, Inés Rivadeneira y Helena Lazarska. En 2013 asistió a la cátedra de canto del Curso Universitario Internacional "Música en Compostela", donde trabajó con la maestra Isabel Penagos.
Fue soprano solista del grupo de cámara In Itinere, especializado en un repertorio que abarca desde el Medievo hasta el Barroco; con él realizó varias giras por Europa y América y grabó tres discos. Ha colaborado también como solista con el Orfeón Terra a Nosa, la Capilla de la Catedral de Santiago, Madrigalia, el Collegium Compostelanum, el Coro de Cámara de La Coruña, Si Vis Me Canere,etc. Participó en el festival Via Stellæ de Santiago de Compostela bajo la dirección de Federico María Sardelli.
Ha cantado como solista en Madrid, Palencia, Guadalajara, Granada, Cartagena, y sobre todo en su tierra, Galicia.

Fernando Enseñat- Berea. Baritonoa / barítono

Artilleriako koronela da (DEM). Oso gazterik hasi zituen kantu-ikasketak Maria Luisa Nache sopranoarekin, bere jaioterriko kontserbatorioan, Coruñan, eta berriro ekin zien, geldialdi luze bat egin ondoren Akademia Orokor Militarrean sartu zelako, Conchita Fraga mezzosoprano coruñarrarekin eta, Madrilen, Fefi Arreguirekin lehenengo, eta Inés Rivadeneira mezzosopranoarekin geroago, hain zuzen zarzuelaren historian izan den ahots handienetakoarekin. Halaber, nazioarteko kantu-ikastaroetan parte hartu du Vienako Kontserbatorioko Helena Lazarska irakasle ospetsuarekin (Santiago), JL Webwer-ekin (Estrasburgo) eta Roland Schulz-ekin (Berlin).
Bakarlari gisa eta Capriccio Vocale taldearen kide gisa, hainbat kontzertutan parte hartu du Galizia osoan zehar, baita Espainiako gainerako hirietan (Madril, Sevilla, Granada, Cartagena, Iruñea, etab.) eta Europako hainbat herrialdetan ere (Portugal, Frantzia, Alemania, Kosovo, Libano). Hain zuzen Kosovon aukera izan zuen Katia Ricciarelli soprano handiarekin batera kantaldi batean parte hartzeko.

Es coronel de Artillería (DEM). Comenzó muy joven sus estudios de canto con la soprano María Luisa Nache en el Conservatorio de su ciudad natal, La Coruña, retomándolos tras un largo paréntesis, motivado por su ingreso en la Academia General Militar, con la mezzosoprano coruñesa Conchita Fraga y, ya en Madrid, primero con Fefi Arregui y más tarde con la mezzosoprano Inés Rivadeneira, una de las grandes voces de la historia de la Zarzuela. Asimismo ha participado en cursos internacionales de canto con la prestigiosa profesora del Conservatorio de Viena, Helena Lazarska (Santiago de Compostela), JL Webwer (Estrasburgo) y Roland Schulz (Berlín).
Como solista y como integrante del grupo "Capriccio Vocale" ha participado en numerosos conciertos por toda Galicia, así como en otras ciudades del resto de España (Madrid, Sevilla, Granada, Cartagena, Pamplona, etc.) y de Portugal, Francia, Alemania, Kosovo (donde tuvo la oportunidad de participar en un recital junto a la gran soprano Katia Ricciarelli) y El Líbano.

Julián Jesús Pérez. Pianoa / piano

Coruñan jaio zen. Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikan doktorea da (bikain cum laude), Musika Hezkuntzan graduondokoa, Ingeles Filologian lizentziatua, Pianoan tituluduna eta Koru Zuzendaritzan diplomaduna.
Gaur egun, Musika irakasle titularra da Bigarren Hezkuntzan. María Moscosorekin hasi zituen musika-ikasketak eta Espainian eta atzerrian handitu eta hobetu zituen garrantzi handiko irakasleekin, besteak beste: Irina Moriatova eta Ilona Timchenko (pianoa), Inés Rivadeneira (kantua), Peter Phillips (polifonia), Javier Busto eta Martin Schmidt (koru-zuzendaritza).
1991n Polifoniako Rosa Sabater saria jaso zuen Música en Conpostela ikastaroan.
Universidade da Coruñako Musika Gela sortu eta zuzendu zuen, eta, bertan, Unibertsitateko Abesbatza, Kamerata Bokala eta UDC Ganbera Orkestra sortu eta zuzendu zituen; kontzertu-zikloak ere antolatu eta kudeatu zituen. Madrigalia Ganbera Abesbatza eta Coruñako Ganbera Abesbatza sortu eta zuzendu zituen. Ganbera-pianista gisa lan egiten du galiziar abeslariekin, batez ere Olga Raíces eta Fernando Enseñat-Berearekin, Capriccio Vocale hirukotean. Talde horiekin Espainia osoan eta Europako hainbat herrialdetan jarduten du.
Ikerketaren arloan, hainbat liburu eta artikulu argitaratu ditu Espainiako eta atzerriko unibertsitate- eta argitaletxe-aldizkarietan.

Nació en La Coruña. Es doctor en Didáctica de la Lengua y la Literatura (sobresaliente cum laude), postgraduado en Educación Musical, licenciado en Filología Inglesa, titulado en Piano y diplomado en Dirección Coral.
Actualmente es profesor titular de Música en Secundaria. Inició sus estudios musicales con María Moscoso y los amplió y perfeccionó en España y en el extranjero con destacados maestros como Irina Moriatova e Ilona Timchenko (piano), Inés Rivadeneira (canto), Peter Phillips (polifonía), Javier Busto y Martin Schmidt (dirección coral).
En 1991 recibió el premio Rosa Sabater de Polifonía en el curso Música en Compostela.
Creó y dirigió el Aula de Música de la Universidade da Coruña, en la que formó y dirigió el Coro Universitario, la Camerata Vocal y la Orquestra de Cámara da UDC; también organizó y gestionó ciclos de conciertos. Fundó y dirigió el Coro de Cámara Madrigalia y el Coro de Cámara de La Coruña. Trabaja como pianista de cámara con cantantes gallegos, principalmente con Olga Raíces y Fernando Enseñat-Berea en el trío Capriccio Vocale. Con estas agrupaciones actúa por toda España y en diversos países europeos.
En el ámbito de la investigación ha publicado diversos libros y artículos en revistas universitarias y editoriales españolas y extranjeras.

EGITARAUA - PROGRAMA

I

Os teus ollos ……..……... Manuel Curros Enríquez - José Castro “Chané”

Rosa de abril ……..…..…… Rosalía de Castro - Andrés Gaos Berea

Negra sombra ……..……..…… Rosalía de Castro - Juan Montes

Panxoliña ……..……..…… Fermín Bouza Brey - Carlos Villanueva
Moldaketa, Julián Jesús Pérez. *Laguntzailea, Mario Clavell Larrinaga (flauta)*

Coita ……..……..…… Álvaro de las Casas - Antón García Abril

Anda, Jaleo ……..……..……... Federico García Lorca

En un rincón del camino ……..……..…… Adelino Barrio

Amor y odio ……..……..…… Fernando Periquet - Enrique Granados

Aurtxoa seaskan ……..……..…… Claudio Sagarzazu - Gabriel Olaizola

II

Armida, dispietata... Lascia ch'io pianga (Rinaldo) ……..... Georg Friedrich Händel

Là ci darem la mano (Don Giovanni) ……..……. Wolfgang Amadeus Mozart

Vaga luna che inargenti ……..…….. Vincenzo Bellini

Malìa ……..……..... R. E. Pagliara - Francesco Paolo Tosti

¡Qué tiempos aquellos! (La del manojo de rosas) ……..…… Pablo Sorozabal

Noche hermosa (Katiuska) ……..……..…… Pablo Sorozabal

Dile (Don Manolito) ……..……..…… Pablo Sorozabal

Dulce sueño (La viuda alegre) ……..……..…… Franz Léhar



LOS 5 BILBAINOS otsailak 26 febrero 19:30

1950ean eratu zen lehenengoz taldea. 1972an (parentesi txiki baten ondoren) sortu ziren indarrez los Nuevos Cinco Bilbainos osagai zaharren bat eta beste berri batzuk tartekatuz, aire berria emanez eta arrakasta berriak lortuz bai Euskadin, bai beste erkidego batzuetan eta baita Ozeanoaz haragoko lurretan ere (Argentina, Mexiko, Venezuela, AEB, etab.)
Dozena bat disko baino gehiago grabatuta, taldekide berrien sarrera, aldaketak… 2019an Varsoviako enbaxada espainiarrean aritzeko aukeratuak izan ziren, eta oroitzapen ona utzi zutenez, oraindik ere aitorpen-gutunen bat jasotzen dute. Gaur egun bilbainaden kantutegi klasikoa abesten jarraitzen dute (gaztelaniaz eta euskaraz), hainbat popurri animatutan, konponketa berriak txertatuz eta beti 4 ahotsetara. Teklatuak, gitarrak, perkusioa… Bilbainada klasikoez gain, zortzikoak, boleroak, zarzuela, lirikoa, hainbat lekutako folklorea (Gipuzkoa, Kantabria, Hego Amerika…) eta abar abesten dituzte, beti ere beren buruari kalitate gorena eskatuz, alaitasunez, bere publikoaren gozamenerako, han-hemenka, 10 urte zein 100 urte izan. Horren erakusgarri dira EITBk Donostiako jaietan, Bilboko Plaza Berrian, Algortako Portu Zaharrean edo TeleBilbaon egindako grabazioak. Ongi etorri gure Jaira! Ongi etorri lagunok! Abestu, dantzatu eta ondo pasa!

Se remonta a 1950 la primera formación de los Cinco Bilbainos.En 1972 (después de un pequeño paréntesis) surgieron con fuerza los Nuevos Cinco Bilbainos con algún componente antiguo y otros nuevos, nuevos aires y nuevos éxitos. Tanto en Euskadi como en otras comunidades y algunos saltos más allá del Océano (Argentina, México, Venezuela, USA, etc.)
Más de una docena de discos grabados, entrada de nuevos componentes, reformas…
En 2019 fuimos elegidos para actuar en la embajada española de Varsovia y dejamos un buen recuerdo y todavía seguimos recibiendo alguna carta de reconocimiento.
Actualmente los Cinco Bilbainos seguimos cantando el cancionero clásico de Bilbainadas (en castellano y euskera), en diferentes “popurris”animados, con arreglos nuevos y siempre a 4 voces. Teclados, guitarras, percusión…. Además de Bilbainadas clásicas,cantamos Zortzikos, Boleros, Zarzuela, Lírico, Folklore de otros lugares como Gipuzkoa, Cantabria, Sudamérica…etc. Bagaje cultural que hemos paseado fuera de Euskadi. Siempre exigiéndonos a nosotros mismos la máxima calidad, sin olvidar la alegría desenfadada, para el disfrute de nuestro público, ya sea de aquí o de allá, tenga 10 ó 100 años. Prueba de ello son las grabaciones de EITB en fiestas de Donostia, Plaza Nueva de Bilbao, Puerto Viejo de Algorta o Aste Nagusia en TeleBilbao. ¡Bienvenidos a nuestra Fiesta! Ongi etorri lagunak! Abestu, dantzatu eta ondo pasa!

Sarrerak/ Entradas: 5 €

Sarreren erosketari eta programazioari buruzko informazioa :
Información sobre compra de entradas y programación:

http://cutt.ly/MusikaEskola

ANDRES ISASI musika eskola
Mesedeetako kalea 6 / Las Mercedes, 6
Tf.94 464 60 11
aisasi@getxo.eus www.getxo.eus

Getxo
ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA
bizi ezazu

KALTEA EGOAN BIZARRA DAGUNAK
Getxo
bizi ezazu